



Donostiako ondare naturala ezagutuz

Gaze.kaleidoskopiok eta Aranzadik lankidetzan garatutako proiektua

Edukia

1. Sarrera.....	2
2. Testuingurua.....	2
Helburuak.....	2
Historia apur bat.....	2
Gizarte-proiektuak, dibulgazioa eta heziketa	3
3. Antolaketa	3
Aranzadiri aurkeztutako lehen proposamena: Hiri akupuntura	3
Behin betiko proiektua: “natura ere Donostiako ondarearen parte da”	5
4. Uliako ekitaldia	6
5. Artikutzako ekitaldia	8

1. Sarrera

Aranzadik natur balioen inguruan egiten duen lanean interesaturik agertu ginela eta sortu zen proiektu hau. Aranzadi kezkatua zegoen donostiarrek haien inguruko ondare naturalarekiko duten interes ezan. Biztanleria geroz eta hiritarragoa da eta naturarekiko kontaktu falta hau oso kaltegarria izan liteke naturaren kontserbaziorako. Ezagutzak bakarrik bai dakar babesa. Hori honela izanda bi taldeen partaidetzaz “ezagutzen dena babesten da soilik” proiektua sortu genuen.

2. Testuingurua

Aranzadi Zientzia Elkarteak 1.700 bazkide ditu eta, horietatik, 150 inguru beren zereginak erakunde honen arloan garatzen dituzten diziplina zientifiko desberdinetako ikertzaileak dira.

Ikertzaileak Natur eta Giza Zientzien arloko unibertsitario tituludunak dira, eta eragin handieneko diziplinak Biologia, Historia, Arkeologia, Medikuntza, Antropologia, Etnografia, Geografia eta Geologia dira.

Helburuak

Sorburutik, Elkarteak hainbat jarduera egin ditu eta hainbeste, non Biodibertsitate eta Antropologia zein Historia arloko garrantzi handieneko erakundea bilakatu den.

Egun, Azterketa eta Ikerketa Zentro eratu da eta, bertan, haien lanak plan eta proiektu espezifikoaren arabera egiten dituzten askotariko espezialistek dihardute.

Azterketa orokorrak zein ikerketa hutsa egiten dugu eta, aldi berean, Zientzia horiek hobeto ezagutzeko dibulgazio-lan zabala ere. Halaber, natur ingurunea eta Ondare Arkeologikoa eta Etnografikoa hobeto kontserbatzeko informazio-lana egiten dugu beste instituzio batzuekin batera.

Historia apur bat

Aranzadi Zientzia Elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarte zientifiko bat da eta natur zein giza ingurunearen ikerketa zientifiko eta lortutako emaitzen dibulgazioa ditu helburu. 1947an sortu zen, eta izena Telesforo de Aranzadi ikertzaile handiaren omenez datorkio (1860-1945).

Azterketa eta Ikerketa Zentro moduan eratuta, Aranzadi komunitate zientifikorako erreferente bihurtu da, 2001ean Erabilgarritasun Publikoko Erakunde aitortu izanak erakusten duen moduan.

Gizarte-proiektuak, dibulgazioa eta heziketa

Natur eta kultura-ondarea babestu eta balio horiek hedatzearen, proiektu-sorta zabal bat bultzatu dugu, gizarte-arloa elementu definitzaile dutela.

Honetaz gain, Aranzadi Elkarteak zientzia dibulgatzeko eta ezagupen zientifikoa gizarteratzeko modu ezberdinetan egiten du lan. Gainera, pentsamendu kritikoa, irizpide zientifikoa eta herritar aktiboa sustatzeko heziketa proiektuak garatzen ditu

3. Antolaketa

Gure proiektua definitu beharrez, Aranzadi elkartearekin harremanetan jarri ginen. Aste batzuk egon ginen hizketan ekitaldiak zeintzuk izango diren erabakitze eta noiz egingo ziren.

Lanean hasi aurretik, Aranzadiren eta gure hutsuneak eta puntu sendoak zeintzuk ziren aztertu genituen. Ebaluazio honen helburua gure lana antolatzeko edo definitzeko izan zen: Auzotarrei beren inguruko naturarekiko kontzientzia nola piztea, eta honen inguruko parte hartze aktiboa nola sustatzea geneuzkan baliabideekin.

. Hasiera batean ideia desberdinak genituen. Guk lehen proposamen bat egin genuen "Hiri akupuntura", jarraian xehetasunez azalduko dena. Bilera eta zenbait ezbeharren ondoren "natura ere Donostiako ondarearen parte da" proiektua definitu genuen Aranzadi eta Gaze:kaleidoskopioko kideok. Proposamen hau ere aurrerago azalduko da xehetasunez.

Aranzadiri aurkeztutako lehen proposamena: Hiri akupuntura

Donostia 2016 Kultur Hiriburuaren izendapenaren baitan urte osoan zehar antolatuko diren ekintza kulturaletan parte hartzeaz gain, Donostiak dituen eremu naturalak ezagutzea eta bertan dauden espezieak ezagutu eta ikusi ahal izatea aukera bikaina da.

Momentu honetan 2016ko agendan alde batera utzi dira ondare naturalarekin loturiko ekintzak, eta honi soluzio bat eman nahi, edo gabezi honekiko errebindikazio txiki bat eginaz, gure helburua natura hirian txertatzea izango da.

Eragileak

- Aranzadi eta Gaze:Kaleidoskopio elkarteak.
- Auzo elkarteak.
- Donostiako udala.
- Parte hartu nahi duen edozein norbanako.

Erronka

- Auzotarrei beren inguruko naturarekiko kontzientzia piztu, eta honen inguruko parte hartze aktiboa sustatu.

Helburuak

- Donostiako jendarteak beren hiriko eremu naturalak eta bertan dauden espezieak beren ondare bezala hautematea. Eremu hauek gehiago ezagutzea, bioaniztasunaz jabetzea, eta bertako espezieen existentzia eta garrantziaz jabetzea.
- Hiritargoaren sentsibilizazioa, natur eremuek jasaten duten kalte egoera eta narriaduraren jabe egitea. Donostian galtzen ari diren espeziekiko jakinaren gainean jartzea.
- Horrelako ekintzek sarritan erakartzen ez duten jendea erakartzea, eta ekintzak soilik familien perfilera ez hurbiltzea, gazte eta helduen perfilera ere bai. Ekintzetara 30 pertsona baino gehiago erakartzeko apustua egin da. Hemen sartu daiteke Innobazio inklusiboaren profila.
- Proiektua jendeak bertan parte hartzea izango da, jendea eta parte hartzeari eman nahi zaio garrantzia.

Hartzaileak

- Auzo mailako eskuhartzea izango duten ekintzak bilatu nahi dira, jendeak bere sentitzen dituen guneetan. Ez dira hiriaren eskalan egingo diren ekintzak izango, nahiz eta testuingurua Donostia izan.
- Parte hartu nahi duen auzotar oro.
- Auzo elkarteek parte hartuko balute irisgarritasuna errazagoa litzateke.

Ekintzak

- Noiz: Igande goizak egokiak iruditzen zaizkigu.
- Non: Auzo mailako parke eta berdeguneetan.
- Nola: Auzolanak egingo diren goizpasen bitartez.
- Iraupena: Goiz bat edo egun oso bat helburuen arabera.
- Maiztasuna: Ez da ekintza bakan bezala aurreikusten, jarraipen bat ematea oso aberasgarria litzateke. (Urtaroan behin, urtean behin... tokiak txandaturuz)
- Bestelakoak:

Auzolanaren helburuaren baitan, Donostiako bioaniztasunaren inguruko tailerrak egitea aurreikusten da ekintzak aurrera ematen diren egunetan.

Jendeak berea sentitzen duena babesten du, hiritarrak beren ekosistemaren eragile sentitzen badira, kontzientzia eta sentsibilizazioa modu nabarian sustatuko da.

- Esku hartze adibidea: Zuhaitzen landatzea, ezegune eta putzuen sorrera...
- Tailerrak ekintzen barruan joango lirateke, adibidez, Sugeekiko familiarizatzeko tailerra, espezie exotikoei buruzko kontzientziazio tailerrak...

Onurak

- Aranzadi bezalako elkarte bat hiritarrei hurbildu.
- Hiritarrei bizi diren inguruaren parte aktibo sentiarazi.

Behin betiko proiektua: “natura ere Donostiako ondarearen parte da”

Donostiako natur balioak ezagutarazteko dibulgazio ekintzak

Munduko biztanleriaren bi heren hirietan biziko dela dio Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 050. urtean, gaur egungo proportzioa %54 kokatzen dela jakinda gizarte hiritartu egingo da eta etidanik naturarekin izan duen lotura galtzen joan liteke pixkanaka. Naturaren kontserbazioaren esparruan bi korrante nabarmentzen dira: kasu batzuetan eremu babestu eta hauskorrek ez zagutarazteko nahia gailentzen da, eta beste batzuetan aldiz, jakitera eman eta balioak agerian zteko nahia nabarmentzen da, portaera honen adibide izan daitezke Plaiaundiko Parke kologikoa edota Urdaibai Bird Center-a. Ez da zergatik bi korranteetako bat aukeratu behar zuten, eremu konkretu bakoitzean kudeaketa eredu desberdin bat erabili daiteke eta. Aralar, Aizkorri edota Gorbeian dauden natur balio ezkutu batzuk ez dira zergatik agerian utzi behar, aldiz hiriguneetatik gertu dauden balioak agerian utziz bi helburu estrategiko bete ditzakegu: alde batetik natur balioak agerian utziz kalte nabaria edo narriadurak jasan ditzaketan eremuak babestu daitezke natur ondarea mantenduz, eta bestetik gizarte sentsibilizatu daiteke. NBE-k argitara eman dituen datuak sinesgarritasun altua dute, eta bilakaera ikusita gizarte mailako lanak martxan jarri beharko lirake gizarte natur balioen garrantziaz jabetu dadin. Gizarte mailan natur ondareak garrantzirik ez duenaren seinale izan daiteke Donostiako Kultur hiriburuaren izendapena. Gertakari honen programan adibidez, zuzenean edo zeharka ez dira natur balioak erakusteko ekintzarik aurreikusten. Natur ondareak kultur ondarearekin erlazioa zuzena duela gauza jakina da, espezie batzuen kasuan eremu hiritarretara moldatzeko gaitasun handia izan dute.

Gauzak honela Aranzadi Zientzia Elkarteak Donostiako udalerrriaren kasuan, natur balioak agerian uzteko hainbat ekintza burutu nahiko lituzke apirila eta maiatzean. Proiektuan Aranzadi Zientzia Elkarteko hiru sailek parte hartuko dute, ekintza gehien eta koordinazio lanaz herpetologia saila arduratuko da, falta diren beste bi ekintzak botanika eta entomologia saileko kideen esku geratuz. Bi sail hauek antolatuko dituzten txangoetan, Donostiako bi eremu babestu erakutsiko dituzte (Artikutza eta Uliako mendia).

1. EKINTZA

Lekua. Pakearen usoa (Sagües).

Ordua. 9:00

Data. Apirilaren lehen hamabostaldia.

Hizkuntza. Euskeraz

Gidaritza. Botanika eta herpetologia saila.

Uliako natur balioak ezagutu nahi?

Uliakoa (ES2120014) Natura 2000 Sarea barruan kokatzen den natur gune babestua da. 004an, Batasunaren Garrantzizko Leku izendatu zen eta egun Kontserbazio Berezikoa

Eremua da udeaketa plan bat martxan du eta. Ulian kostako itsaslabarrak eta txilardiak aurkitzeaz gain, ertako basoaren orbain arrastoak daude, eta berau ordezkatzan duten sega-belardi, txilardi, tadi zein iratzediak. Gainera, hainbat gunek heze aurki daitezke, lekuaren bioaniztasuna mendentzeaz gain, mehatxuan dauden espezieak dutenak. Irteera honen bidez, Ulian aurkitzen den ondare naturala ikusteko aukera izango dugu. Irteera Saguesetik abiatuko da eta Kostako one Jakue bidetik barrena natur gunek dituen balio naturalak azalduz joango gara. Behin oilektorera iritsita gorako bidea hartu eta Mendiola bidetik Mirakruz gainera iritsiko gara eta liako bizilagunekin batera Uliako lore baratzak bisitatuko ditugularik.

2. EKINTZA.

Lekua. Aranzadi Zientzia Elkarteko egoitzan (Zorroaga).

Ordua. 9:00

Data. Maiatzaren lehen hamabostaldia.

Hizkuntza. Gazteleraz

Gidaritza. Entomologia eta herpetologia saila.

Natur balioen aldetik Donostiak duen altxor nagusia, Artikutza

Donostiako eremu hiritarretik 40 kilometrotara dagoen lursaila da Artikutzakoa. 2004. urtean, atura 2000 Sarearen parte izatera pasa zen Artikutza, eta Nafarroan dauden Garrantzia omunitarioko 42 Lekuak bat da. Naturaren ikuspuntutik bi elementu nabarmendu daitezke: oso naturala eta erreka sistema trinkoa. Pagadi, harizti eta hagin sailak, ia 100 urtez babestua gon den lursailean nagusi dira, azaleraren %90a estaliz. Horrez gain erreka sistema oso berats bat dago, bere ibaiertzeko landarediarekin (gehienbat haltzadiak). Errekasto horiek ntereseke fauna eta flora ezkutatzen dute, eta azken bi urteotan bertako bioaniztasuna zalgutzeko azterketak bultzatu ditu Donostiako udalak. Ibilbide honen gidaritza bertan ikerketa ana burutzen ari den entomologia saileko adituak gauzatuko du. Ondare naturala aztertzeaz ain ikuspegi kulturaletik ere informazioa helaraziko zaio parte hartzaileari. Hiritar askorentzat rrotz eta ezezaguna den eremua, beratik ikusi eta gozatzeko aukera izango dute bertaratzen irenak. Donostiak duen harribitxi handienetako bat ezagutuz.

4. Uliako ekitaldia

Ulia ekitaldiaren prestaketarekin hainbat zailtasun eta ustekabeak izan genituen. Nahiz eta Ionekin (Aranzadiko gure kontaktu) harreman ona izan, momentu batzuetan zailtasunak genituen berarekin kontaktatzeko. Horregatik, askotan pixka bat galduta geunden gure proiektua aurrera eramateko.

Hasiera batean Ulian auzolanak egin nahi nituen, baina azkenean ezin izan genituen egin, Donostia udaletxeak ezetza eman zigulako.

Ekitaldiaren difusioa egin aurretik, honen data aldatu izan behar genuen asteburu horretan eguraldi txarra egingo zuelako. Horregatik azkenean maiatzak 8 egin zen.

Auzolanak egin nahi genuenez, erabaki genuen ekitaldia Uliako lore-baratzean bukatzea, bertan egiteko. Azkenean ezin izan genituen egin igande horretan udaberriko festa zutelako.

Egin beharrak ondo banatu ziren taldekideen artean eta bakoitzak bere egin beharrak egin zituen:

- Difusioan (Kartelak egiten eta itsatsi, jubilatu zentroekin eta eskolekin kontaktatu)
- E-mailak egiten
- Katerina eskatu eta antolatu.

Gastuak

Guk ekitaldiaren hizlariaren soldata ordaindu izan behar genuen (350 €). Gainerakoa Aranzadi.

Ekitaldia

Ekitaldian jende gutxi joan zen, ia gehiegiak GAZEKideak. Arrazoi bat izan liteke difusioan izandako arazoak (ebaluazioan azaltzen dira) eta ekitaldiaren hartzaileei iristea zaila zelako.





Ekitaldia goizeko 9:00tan hasten zen Sagüeres eta 13:30 amaitzen zen Uliako-lore-baratzean; goizeko erdian hamaiketakoa hartzeko asmoarekin. Helburua: Uliako baliabideak ezagutu.


Ekitaldiaren ebaluazioa

Ebaluazioa egiteko taula bat erabili genuen. Honako informazioa agertzen da taulan: zer egin dugun gaizki, hobetzeko, zer ikasi degun, zer egin dugun ondo.



Taula 1. Uliako ebaluazioa.

	
<p>Talde harremana Aranzadirekin harremana</p> <p>Erreakzio ona arazoan aurrean Dena birziklatu zen Interakzioa egon zen Jendea gustora egon zen (giro ona) Gauza bitxiak egin ziren Lunch egokia</p>	<p>Karteletan ekitaldiaren hizkuntza akatsa Difusio estrategia -Kartel gutxiago erabili -Zaharrekin difusio aktiboa egin behar da -Ikastoletan gurasoekin kontaktatu behar da, ez umeekin</p>
	
<p>e-maila erabili ordez, whatsapp-a erabili Kartelak ez dute funtzio handirik Txarla oso teknikoa, informalagoa egin</p>	<p>Komunikazio estrategia aldatu Prensa eta irratia erabili difusiorako</p>

 Ze estrategia erabili hurrengo ekitaldirako?

- Publikoa aldatu:
 - Helduak 50-60 urtekoak
 - Zaharren etxeak (estrategia aldatu)
 - Familiekin kontaktatzeko sistemamodua bilatu!

Orokorrean ekitaldia ondo atera zen eta ez genituen izan bat-bateko arazorik izan.

5. Artikutzako ekitaldia

Ekitaldi honetarako denbora gutxi izan genuen. Uliako ebaluazio egin ondoren bi erabaki bereziki hartu genituen: difusioa eta publikoa aldatu.

- Difusioa: kartelak eta prentsa oharrak erabili.
- Publikoa: helduak eta gazteak ziren gerturatu nahi genituen biztanleria.

Aurrekoan bezala, Ionekin kontaktatu genuen eta ekitaldiaren gauza batzuk zehaztu genituen: joan litekeen jende kopuru gehiena, bazkaria eskainiko izango bagenu, Artikutzaren autobusa alokatuta bazegoen a la ez ...

Artikutzan, natura erretserba denez, ezin izan genuen ere egin auzolanak. Ekitaldi astebete bat lehenago 25 pertsona apuntatua geneuzkan (gehienez 39 pertsona joan genezakeen), horregatik kartelak ez inprimatzea eta difusioa bakarrik whatsapp eta egunkarien bitartez egitea erabaki genuen. Maiatzak 27 zerrenda bete zen.



Gastuak

Aurrekoan bezala, guk bakarrik hizlariaren soldata ordaindu izan behar genuen (350 €). Gainerakoa Aranzadi (autobusa eta hamaiketakoa).





Ekitaldia

Igandeko 8:30tan ateratzen ginen Ibatetaik (Antiguon, unibertsitateko liburutegi zentraletik) eta arratsaldeko 16.30tarako Donostian bueltan.

Ekitaldiaren ebaluazioa

Ekitaldia antolatu bezala egin zen. 8:30tan abiatu ginen Ibaetatik eta 17:00tarako bueltan ginen Donostian. Autobusa bete beterik joan zen, oso jende anitzarekin: gazteak, zaharrak, euskaldunak, espainolak, txiletar bat, hiru aleman... egindako ibilaldiarekin gustura gelditu zirela iruditzen zaigu.

Taula 2. Artikutzako ebaluazioa.

 Talde harremana Partaideen aniztasuna Jendea gustora egon zen (giro ona) Gauza bitxiak egin ziren Lunch egokia	 <ul style="list-style-type: none">- Kartelak beranduegi bukatu ziren, nahiz eta azkenean ez erabiltzea erabaki zen- Prentsa oharrak berandu bidali ziren
 e-maila erabili ordez, whatsapp-a erabili Ahoz ahozko kanpaina eraginkorra da. Taldeakideak motibatuak badaude kendea motibatuko dute. Ibilaldian zehar geldialdi gutxiago egin	 Difusioarekin lehenago hasi

6. Fitxa teknikoa

Proiektuaren lan taldea: Sarai Gómez, Ane Sarriegi, Beñat Azaldegi, Ion Garin (Aranzadi) eta Ane Villaverde.

7. Esker onak

Ion Garin Barrio eta Aranzaditik haien ekarpena egin duten aditu guztiei.
Eta nola ez, mila esker ekitaldira gerturatu zineten guztiei.

Donostian, 2016eko maiatzaren 31n